

Lansarien ekiparazioaren inguruko gezurrak gezurtatzen

Azken hilabeteen albiste faltsuak behin eta berriz ateratzen ari dira itunpeko langileen lansarien ekiparazioaren inguruan, gizartearen ikastolen inguruko ideia negatiboa zabalduz. Egoera horren aurrean, Ikastolen Elkarateak [prentsa-ohar](#) bat atera behar izan du informazio faltsua gezurtatuz eta argi adieraziz LABek Hezkuntzarekin (Ikastolen Elkaratearen parte-hartzerik gabe) adostutako akordio honek ikastolok ditugun kostuak ez finantzatzeaz gain, kostu gehigarria ekarriko digula. Zurriola Ikastolako zuzendaritzak eta langile batzordeak bat egiten dugu gai honen inguruko balorazioan, eta hala adierazi diegu langile guztiei.



Sorleku parkea

Udalak A tegorrietan egitekoa zen Sorleku parkearen ordez disuasio-aparkaleku bat eraikitzeakoasmoa du. Parte-hartze prozesu batean diseinatu genuen parkea (Ikastolako 300 ikaslek, besteak beste), eta hemen bizi garenontzako parke baten ordez, kanpotik datozenentzako aparkaleku bat egin nahi dute orain. Udalari bere promesak errespetatzeko eta Sorleku parkea eraikitzeko [eskaera](#) sinatzeko deia egiten dizuegu guztioi, bai eta datorren urriaren 29an protesta publiko bat antolatzeko egingo dugun asanblada irekian parte hartzeko ere.



Euskadiko Orkestra bertatik bertara

LH 2ko ikasleak Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren emanaldiaz gozatzera hurbildu ginen atzo Miramonera. Bertan, Beethoven, Mozart eta beste askoren melodia famatuetaz Disfrutatu genuen, modu misteriotsuan. Datorren astean LH4koen txanda izango da!



Xubane Uribarrena Ikastolan

Asteazkenen arratsaldean, LH4ko ikasleok Arraun Lagunak taldeko Xubane Uribarrena arraunlari eta ikasle ohiaren bisita jaso genuen. Arraunaren, Ikastolako bizipenen eta kirolaren inguruan gelan prestatu genizkion galderei erantzun zien, eta oso gustora entzun genuen kontatutako guztia. Eskerrik asko, Xubane!!



Okendoko liburutegira eta Gaztelekura bisita

Asteazken goizean, LH 6A gelako lagunak Okendoko liburutegi eta Gaztelekuan izan ginen jolasean. Leku bikaina larunbatetan ere familiarekin gerturatzeko. Primeran pasa genuen!!



Euskara Batzordea martxan

Euskararen erabilera indartzea da Ikastolaren ardatz nagusietako bat, eta hori lortzeko bidean DBH 3 eta 4ko hainbat ikaslek Euskara Batzordea indartu eta lanari ekin diote aurten ere. Jarraitu dezagun guztion artean lanean!



DBH4koak Flyschean

DBH 4-ko Biologia eta Geologiako ikasleok Zumaiaiko Flyschak aztertzeraz joan ginen atzo, Euskal Herriko geologiari buruzko alderdi interesgarriak zuzenean ikustera. Eguraldi kaskarra izan genuen, baina museoa bisitatu ondoren Flyscha bertatik bertara ere ikusi genuen tarte txiki batean.



Zorriak bueltan

Aurten ere zorriak iritsi dira geletara, baita Bigarren Hezkuntzara ere! Ballatu dezagun asteburua guztiok "garbi" itzul gaitezen! Apurtu dezagun katea!



Igandean, Nafarroa Oinez!

Igande honetan ospatuko da Nafarroako Ikastolen aldeko jaia Zangozan, eta gu ere beroketalanetan aritu gara aste honetan! "Piztu!" lelopean, Zangoza Ikastolak [ibilbide eta egitarau](#) polita prestatu ditu iganderako, eta larunbatetik joan nahi duenarentzat [Oinez Asteburua](#) ere izango da. Ospatu ditzagun Ikastolak!!




Palestinaren aldeko elkarretaratzeak

Gernika Palestina herri ekimenarekin bat egin, eta gertatzen ari denaren aurrean gure gaitzespena azaldu eta bakea, justizia eta itxaropena aldarrikatzeko mobilizazioekin bat egingo dugu. Datorren astelehenean, urriak 21, elkarretaratzeak egingo ditugu 10:00etan Hurrako atarian, 16:30ean Ategorrietako eskaileretan eta 16:45ean Soroa pareko parkean. Ikasle, familia eta langile guztiei dei egiten dizuegu mobilizazioetan parte hartzera.



OHARRAK / AGENDA:

- Ez-ohiko Batzar Orokorra: Urriak 22. 19:00. [Izen-ematea](#).
- HH2-3: Bakarkako guraso bilerak. [Zirkularra](#).
- LH2A-B: Okendoko Haurtxokora bisita. Urriak 24. Goizpasa.
- LH4: EOS, kontzertu pedagogikoa. Urriak 21. Goizpasa.
- LH6B: Okendoko liburutegi eta Gaztelekura bisita. Urriak 23. Goizpasa.
- DBH3C: Haziberria proiektuaren tailerra. Cristina Enea Fundazioa. Urriak 24.
- DBH4: Balenciaga museoaren tailerra Ikastolan. Urriak 21. Kamiseta zahar bat ekarri.
- Helduen Danborrada: [Izen-emate galdetegia](#). Epea: Urriak 31.
- Artea familian: 1. saioa urriaren 19an. [Informazioa](#) eta [izen-ematea](#).



@zurriolaartebatxilergoa

